



# LISTERIOSIA

ZAINTZA EPIDEMIOLOGIKOAREN SARE NAZIONALEKO (ZESN)

2019ko abuztuak 27

ZAINTZA EPIDEMIOLOGIKOKO PROTOKOLOAK

## LISTERIOSIAREN BEHAKETA PROTOKOLOA

### GAIXOTASUNAREN DESKRIBAPENA

#### Sarrera

Listeriosia normalean noizbehinkako kasuetan agertzen da. Maila epidemiologikoan, aipagarria da gizakien artean modu bertikalean transmititu ahal dela eta azken urteotan agerraldi garrantzitsu batzuk izan direla elikagaien bidez transmititu delako.

Listeriosiak sukar pixka bat eragiten du, baina meningoentzefalitisa, sepsia edo biak eragin ahal dizkie jaioberri nahiz helduei, eta haurdun dauden emakumeek umea galtzea ere eragin dezake. Meningoentzefalitisa (ezohikoa haurdun dauden emakumeen artean) bat-batean has daiteke, eta subakutua izan daiteke batez ere immunodepresioa dutenen eta adineko pertsonen artean. Oinarrizko beste gaixotasunik ez duten pertsonen artean, sukar arineko koadro akutu bat baino ez du eragiten, batzuetan gripearen antzekoa. Hala ere, haurdun dagoen emakumeak infekzioa umekiari kutsatzen dionean, umeak hilda jaio daitezke, edo septizemiarekin edo meningitisa izan dezakete jaioberri-denboraldian, baita amak sintomarik ez badu ere. Amaren erditze-ostea normala izan ohi da, baina jaioberrien hilgarritasun-tasa % 30ekoa da, eta ia % 50ekoa koadroa jaio ondorengo 4 egunetan hasten baldin bada.

#### Eragilea

*Listeria monocytogenes* bazilo Gram positiboak eragiten du. Bakterio horren ezaugarriak ez dira besteenak bezalakoak, izan ere, bakterio horrek nolabaiteko gaitasuna du ingurune azidoan (4,3-9,6 pH tartea) nahiz gatz-kontzentrazio altutan (CINa % 25,5) bizirik irauteko. Temperatura baxuetan hazi egiten dira, baita izozte-tenperaturatik behera ere.

*Listeria monocytogenes* bakterioaren 13 serotipo eta serotiporekin lotuta dauden lau leinu identifikatu dira. Elikagaietan eta lagin klinikoetan maiztasun handienaz identifikatu diren serotipoak 1/2a, 1/2b, 1/2c eta 4b dira (isolamenduen % 96). Agerraldi gehienak 4b serotipoak eragiten ditu.

#### Erreserborioa

Mikroorganismoaren erreserboriorik nagusienak zorua, bazka, ura eta siloraketak dira. Urte-sasoia arabera pentsu bezala erabiltzen denez, maiz listeriosia intzidentzia handiagoa da animalien artean. Beste erreserborio batzuk hauek dira: kutsatutako ugaztunak, etxeokak eta basatiak, eta etxeke hegaztiak; era berean, gizakiak ere erreserborioak izan daitezke. *Listeria* bakterioak hainbat gainazaletan (altzairua, tefloia, poliesterra, etab.) biofilmak eratzeko duen gaitasunari esker, denboraldi luzeetan zehar bizirik iraun dezake elikagai-industriaren instalazioetan.

## **Transmititzeko modua**

Elikagai kutsatuen bidez transmititzen da batez ere: esnea, higienizatu gabeko gaztak (bigunak) prestatutako elikagaiak (patea edo xerratan moztutako haragi-produktuak), barazki kutsatuak edo arrantza-produktu ketuak. Kutsatzeko beste bide batzuk dira amarengandik umearenganako transmisioa, plazentaren bidezkoa edo erditzeko kanalaren bidezkoa. Kasu nosokomialak ere jakinarazi dira. Albaitari eta nekazarien artean azaleko infekzio lokalizatuak ikusi dira material kutsatuarekin kontaktu zuzena izategatik.

## **Inkubazio-aldia**

Inkubazio-aldia 3 eta 70 egun artekoa da; mediana 21 egun da.

## **Kutsakortasun-aldia**

Sintomarik gabeko eramailearen egoera ohikoa da gizakiarengan (gehienez % 10) zein animaliengan. Emakumeak sintomarik gabeko bagina-eramaile izan daitezke. Kutsatutako jaioberrien amek eragile kutsakorra kanpora dezakete baginako fluxuaren eta gernuaren bidez, erditu eta 7 eta 10 egun ondoren. Kutsatutako pertsonak mikroorganismoak eginkarrietan iraitz ditzakete hilabeteetan zehar.

## **Kutsatzeko arriskua**

Honako hauek dute kutsatzeko arrisku handia: umekiek eta jaioberriek, adinekoek, immunodeprimituek, haurdun dauden emakumeek eta beste gaixotasun batzuk ere badituzten pazienteek; esaterako, alkoholismoa, zirrosia, diabetesa edo neoplasiak. Infekzioa ume eta heldu gazteengan agertzen denean ez du adineko edo immunodeprimituengan bezain koadro larria eragiten. Lotura estua dago immunodepresioaren (batez ere zelularra) eta listeriosi inbasiboaren artean. Burdina birulentzia-faktorea da *L. monocytogenes* bakterioarentzako; ikuspuntu kliniko kontuan hartuta, burdina-gainkarga listeriosiarentzako arrisku-faktorea da. Immunitate hartuaren ebidentzia gutxi dago, baita infekzio larri eta luzeen ondoren ere.

## **GAIXOTASUNAREN BEHAKETA**

### **Helburuak**

1. Listeriosia biztanleengan agertzeko patroia ezagutzea eta azaltzea.
2. Kasuak goiz hautematea, gaixotasunaren hedapena kontrolatzeko, prebentzio-neurriak ezartzeko eta agerraldiak prebenitzeko.

## Kasuaren definizioa

### Irizpide klinikoa

Pertsonak seinale kliniko hauetako bat izatea, gutxienez:

***Jaioberriaren listeriosiak*** ezaugarrietako bat hilik jaiotzea da edo gutxienez, bost seinale hauetako bat izatea bizitzako lehenengo hilabetean:

- Granulomatosi infantiseptikoa
- Meningitisa edo meningoenzefalitisa
- Septizemia
- Disnea
- Azaleko, mukosetako edo konjuntibako lesioak

***Haurdunaldiko listeriosiak*** ondorengo hiru ezaugarri hauetakoren bat du gutxienez:

- Abortua, eragindakoa edo berezkoa, umea hilik jaiotzea edo garai aurreko erditzea
- Sukarra
- Pseudogripearen sindromea

***Listeriosiaren beste formak*** ondorengo lau ezaugarri hauetakoren bat du gutxienez:

- Sukarra
- Meningitisa edo meningoenzefalitisa
- Septizemia
- Infekzio lokalizatuak, artritisa, endokarditisa eta abzesuak esaterako.

### Laborategiko irizpidea

Ondoko bi irizpideetatik bat, gutxienez:

- *Listeria monocytogenes* bakterioaren isolamendua normalean esterila den kokapen batean.
- *Listeria monocytogenes* bakterioaren isolamendua normalean esterila ez den kokapen batean: umekian, hilik jaiotako umearengan, jaioberriarengan edo amarengan erditzetik 24 ordu igaro baino lehen.

## Irizpide epidemiologikoa

Hiru harreman epidemiologiko hauetatik bat, gutxienez:

- Kasu batekin kontaktua edukitzea edo transmisio bertikala.
- Iturri komun batekiko esposizioa.
- Elikagai edo ur kutsatutatik jan edo edatea.

## **Kasuen sailkapena**

Kasu susmagarria: ez dagokio.

Kasu probablea: irizpide klinikoak betetzen dituen eta harreman epidemiologikoren bat izan duen edonor.

Baieztatutako kasua: laborategiko irizpideak betetzen dituen norbait.

edo

laborategiak baieztatutako listeriosia duen umeki, hilda jaiotako ume edo jaioberriaren ama.

Ama eta jaioberriengan agertzen diren kasuak bi kasu desberdin bezala jakinarazi behar dira.

## **Agerraldiaren definizioa**

Harreman epidemiologikoa duten listeriosi kasu bi edo gehiago.

## **BEHATZEKO MODUA**

Autonomia-erkidegoak banan-banan jakinaraziko dizkio listeriosi kasu probableak eta kasu baiezatuak Epidemiologiako Zentro Nazionalari, Behaketa Epidemiologikoko Sare Nazionalaren bidez, eta zehazki, kasua adierazteko epidemiologia-inkestako informazioa bidaliko dio, astean behin (epidemiologia-inkesta erantsi da). Hasierako adierazpenaren ondoren eguneratu ahal izango da kasuari buruzko informazioa, eta informazioaren urteko baterakuntza egingo da.

Agerraldia gertatuz gero, autonomia-erkidegoko Behaketa Zerbitzuak agerraldiari buruzko azken txostena bidaliko dio Epidemiologiako Zentro Nazionalari, ikerketa amaitu eta hiru hilabete igaro aurretik. Gainera, inplikaturako kasuen epidemiologia-inkestak bidaliko zaizkio Epidemiologiako Zentro Nazionalari.

Merkaturatutako elikagai batekin lotutako kasu edo agerraldiak daudela susmatuz gero, autonomia-erkidegoak premiaz jakinaraziko die Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioko Alerten eta Osasun Larrialdien Koordinazio Zentroari eta Epidemiologia Zentro

Nazionalari. Alerten eta Osasun Larrialdien Koordinazio Zentroak eragindako autonomia-erkidegoekin batera baloratuko ditu hartu behar diren neurriak, eta, beharrezkoa balitz, Europar Batasuneko Alerta eta Erantzun Azkarreko Sistemari eta OMERi jakinarazi, Nazioarteko Osasun Erregelamenduarekin (2005) bat eginez.

## **OSASUN PUBLIKOKO NEURRIAK**

### **Prebentzio-neurriak**

Haurdun dauden emakumeek eta gabezia immunitarioak dituzten pertsonak ondo egindako okelak eta esneki pasteurizatuak bakarrik kontsumitu behar dituzte, bai eta janari-hondarrak berotu ere. Horrez gain, kontsumitzeko prest dauden elikagai prestatuak eta infektatzaileak izan daitezkeen materialekin kontaktua izatea ekidin behar dute (baserriko animalien fetu abortatuekin, esaterako).

Animalia-jatorriko elikagaiek elikagaien higiene eta segurtasunaren arloko arauak betetzen dituztela ziurtatu behar da.

Ez da komeni ortuko produktuak ernetzeko tratatu gabeko satsa erabiltzea, eta barazkiak behar bezala desinfektatuko dira, gordinik jango badira edo gutxi eginda jango badira.

Albaitariak eta baserritarrek abortatutako fetuak eta animalia gaixo edo hilak (bereziki entzefalitisagatik hildako ardiak) maneiatzeko neurri egokiak hartuko dituzte.

### **Kasu bat dagoenean hartu beharreko neurriak**

Kasuak mikrobioen aurkako tratamendua jaso behar du, kontaktua bakarrik egon bada nahikoa da behaketa klinikorekin. Zentzuzkoa izan liteke kotrimoxazola edo anpizilina ematea egun batzuetan zehar, epidemia-agerraldia sortu duten elikagaiak jateagatik listeriosia izateko arrisku handia duten sintomarik gabeko pertsoneri.

### **Agerraldia gertatzen denean hartu behar diren neurriak**

Listeriosi-agerraldia badago, ikerketa epidemiologikoa hasi behar da infekzio-iturria eta transmisio-modua zeintzuk diren zehazteko, eta prebentzio eta kontrolerako neurriak hasi behar dira.

## BIBLIOGRAFIA

- Listeriosis. In: Heymann DL (argitaratzailea). Control of Communicable Diseases Manual. 19. argitaraldia. Washington: American Public Health Association, 2008, 357-361 or.
- Human *Listeria monocytogenes* infections in Europe - an opportunity for improved European surveillance. J Denny, J McLauchlin. Eurosurveillance 13:13. lib., 2008-05-27.
- CDC frequently asked questions about listeriosis. In: [http://www.cdc.gov/nczved/dfbmd/disease\\_listing/listeriosis\\_gi.html](http://www.cdc.gov/nczved/dfbmd/disease_listing/listeriosis_gi.html)
- Erabakia, 2008ko apirilaren 28koa, Batzordearena, 2002/253/EE Erabakia aldatzen duena. Horren bidez, sare erkideari kutsatu ahal zaizkion gaixotasunen berri emateko kasuen definizioak ezartzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2119/98/EE Erabakiarekin bat eginez.
- SB. Barbuddhe, T Maier, G. Schwarz, M Kostrzewa, H. Hof, E. Domann, T. Chakraborty, T. Hain. Rapid identification and typing of *Listeria* species by matrix-assisted laser desorption ionization.time of flight mass spectrometry. Appl Environ Microbiol. 2008 iraila; 74(17): 5402-7.
- Sperry KE, Kathariou S, Edwards JS, Wolf LA. Multiple-locus variable-number tandem-repeat analysis as a tool for subtyping *Listeria monocytogenes* strains. 2008; 46(4):1435-50.
- B. Sawaminathan, P. Gerner-Smidt. The epidemiology of human listeriosis. Microbes an Infection. 2007; 9:1236-1243.
- Bennett Lorber. *Listeria monocytogenes*. In: Mandell, Douglas eta Bennett. Enfermedades infecciosas. Principios y práctica. Elsevier, 6. argitaraldia. Madril, 2006; 2478-2484. or.
- A Working Group of the former PHLS Advisory Committee on Gastrointestinal Infections. Preventing person-to-person spread following gastrointestinal infections: guidelines for public health physicians and environmental health officers. Commun Dis Public Health. 2004;7:362-84

## LISTERIOSIAREN INKESTA EPIDEMIOLOGIKOA

**Oharra:** ematen diguzun informazio oro konfidentziala da. Bilduko den informazioa zure gaixotasunaren kausa zehazteko eta kasu berriak agertzea prebenitzeko erabiliko da.

### 1. DEKLARATZAILEAREN ETA DEKLARAZIOAREN DATUAK

Deklarazioaren eguna: / / Kasuaren data (sintomen hasiera): / /  
Kasuaren identifikatzailea: (LH; kasu-zk.) Zer kasutara dagoen loturik:  
Deklaratzailea: Inkestari erantzuten  
dion pertsona:

### 2. PAZIENTEAREN DATUAK

Izen-abizenak:  
IKK:  
Jaiotze-data: / / Adina: Sexua:  Emakumea  
 Gizona  
Telefono-zenbakia: Helbidea:  
Udalerria:  
Probintzia: Autonomia Erkidegoa: Herrialdea:  
Osasun-zentroa: Familia-medikua:  
Kasu mota:  
 Listeriosiaren beste forma batzuk (joan 3. puntura)  
 Haurdunaldiko listeriosia (joan 4. puntura)  
 Jaioberriaren listeriosia (joan 5. puntura)

### 3. GAIXOTASUNAREN DATUAK. LISTERIOSIAREN BESTE FORMA BAT

Ospitalizazioa:  Bai  Ez Ospitalizazio-data: / / Alta-data: / /  
Heriotza:  Bai  Ez Heriotza-data: / /  
Kasua non gertatu den\*:  
Udalerria: Probintzia: Autonomia Erkidegoa:  
Herrialdea:  
Inportatua:  Bai  Ez

#### LABORATEGIKO DATUAK:

Lagina jaso den eguna: / / Diagnostikoaren eguna: / /  
Agente etiologikoa: *Listeria monocytogenes*

Serotipoa

PCR taldea

PFGE:

Lagin mota:



LZR

Odola

Beste bat:

**Isolamendu Proba**

Lagina Erreferentziako Laborategi Nazionalera (ELN) bidali da  
Deklaratzaileak ELNri bidali dion laginaren identifikatzailea  
Laginaren identifikatzailea ELNn

Bai  Ez

**DATU KLINIKOAK**

**Sintomak hasi ziren eguna:** / /

**Aurrekari medikoak**, behar beste markatu:

Minbizia

Immunoeskasia

Giltzurrunetako gaix.

Gibelego gaix.

Diabetesa

Alkoholismoa

Beste

batzuk

**Sintomak:**

	<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Beherakoa*	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Buruko mina	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gorakoa/goragalea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Asintomatikoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

	<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Muskuluetako mina	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sukarra	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Hotzikarak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

\*3 gorozki bigun edo gehiago 24 orduan

**Gaixotasuna nola agertzen den:**

Sukarra

Meningitisa edo menigoentzefalitisa

Bakteriemia/Sepsia

Infekzio lokalizatuak (artritisa, endokarditisa, abzesuak...)

Beste batzuk:

**Kasuen sailkapena:**

Probablea

Baieztatua

**Agerraldiei loturikoa:**  Bai  Ez

\* Kasua non gertatu den: infekzioarekiko esposizioa non gertatu den edo infekzioa non hartu den. Gaixotuz gero, elikagaiaren jatorria hartuko da kontuan, eta gainerakoetan, oro har, pazienteak gaixotasuna non hartu bide duen. Toki hori zein den jakin ezean, kasuaren bizilekua.

#### 4. GAIXOTASUNAREN DATUAK. HAURDUNALDIKO LISTERIOSIA

**Kasua non gertatu den\*:**

Udalerria:

Probintzia:

Autonomia Erkidegoa:

Herrialdea:

**Inportatua:**  Bai  Ez

**DATU KLINIKOAK**

**Sintomak noiz hasi ziren:** / /

Sintomak:	Bai	Ez		Bai	Ez
Beherakoa*	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Goragaleak/gorakoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Buruko mina	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Muskuluetako mina	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sukarra	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Hotzikarak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Asintomatikoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>			

\*3 gorozki bigun edo gehiago 24 orduetan

**Gaixotasuna nola agertzen den:**

- Sukarra       Pseudogripearen sindromea       Abortua (eragindakoa edo berezkoa)  
 Hilik jaioa (>22 aste eta >= 500 g-ko pisua)       Garai aurreko erditzea       Beste batzuk:

**Ospitalizazioa:**  Bai       Ez      Ospitalizazio-data: / /      Alta-data: / /

**Heriotza:**  Bai       Ez      Heriotza-data: / /

Diagnostiko egiterakoan zeuzkan haurduntza-asteak:

Haurdunaldiko emaitzak:       Haurdun jarraitzen du       Berezko abortua       Eragindako abortua  
 Umekiaren heriotza (>22 aste eta 500 g-ko pisua)     

Bizirik jaio da

Data: / /      (erditzea, abortua...)

**Kasuen sailkapena:**       Probablea  
 Laborategiak baieztatua  
 Baieztatutako kasuaren ama

Agerraldiei loturikoa:  Bai       Ez

**LABORATEGIKO DATUAK:**

Lagin mota:       LZR       Odola       Plazenta edo likido amniotikoa       Beste batzuk:

Lagina noiz jaso den: / /      diagnostikoaren data: / /

Serotipoa

PCR taldea

PFGE:

\* Kasua non gertatu den: infekzioarekiko esposizioa non gertatu den edo infekzioa non hartu den. Gaixotuz gero, elikagaiaren jatorria hartuko da kontuan, eta gainerakoetan, oro har, pazienteak gaixotasuna non hartu bide duen. Toki hori zein den jakin ezean, kasuaren bizilekua.

**5. JAIOBERRIAREN LISTERIOSIAREN DATU KLINIKOAK ETA LABORATEGIKOAK**

**DATU KLINIKOAK**

Sintomak hasi ziren eguna: / /

Sintomak:	Bai	Ez		Bai	Ez
Beherakoa*	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Sukarra	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gorakoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Disnea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Hotzikarak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Beste batzuk		

\*3 gorozki bigun edo gehiago 24 orduetan pisua)  Bakteriemia/Sepsia  Disnea

Granulomatosi infantiseptikoa  Meningitisa edo meningoenzefalitisa

Azaleko, mukosetako edo konjuntibako lesioak  Beste batzuk:

**Ospitalizazioa:**  Bai  Ez Ospitalizazio-data: / / Alta-data: / /

**Heriotza:**  Bai  Ez Heriotza-data: / /

**Kasua non gertatu den\***

Udalerria: Probintzia: Autonomia Erkidegoa:  
Herrialdea:

Inportatua:  Bai  Ez

Haurduntza-asteen kopurua:

Haurdunaldiko emaitzak:  Umekiaren heriotza (>22 aste eta 500 g-ko pisua)  Bizirik jaio da  
Data: / / (jaiotza edo abortua)

**Kasuen sailkapena:**  Probablea  Laborategiak baieztatua

**LABORATEGIKO DATUAK:**

**Lagin mota:**  LZR  Sudur-faringeetako exudatua  
 Odola  Konjuntiboko exudatua  Beste bat:

**Lagina jaso den eguna:** / / **Diagnostikoaren eguna:** / /

\* Kasua non gertatu den: infekzioarekiko esposizioa non gertatu den edo infekzioa non hartu den. Gaixotuz gero, elikagaiaren jatorria hartuko da kontuan, eta gainerakoetan, oro har, pazienteak gaixotasuna non hartu bide duen. Toki hori zein den jakin ezean, kasuaren bizilekua.

## 6. ELIKAGAI EI BURUZKO IKERKETAREN EMAITZAK

### Markatutako elikagaietan jasotako baieztapen mikrobiologikoa

- Fianbreak eta hestebeteak  Barazkiak  Gazta eta esnekiak  
 Fruta  Arrainak eta mariskoak  Beste batzuk
- Zein

## 7. ELIKAGAI EI BURUZKO INKESTA

<b>A. Sintomak hasi aurreko 4 asteetan zehar / / eta / / bitartean):</b>		
Egoitza-instituzioren batean bizi izan al zara (zaharren egoitza, instituzio mentala...)?		
<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez	<input type="checkbox"/> ED Instituzioaren izena:
Bidaiaren bat egin al duzu?	<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	Nora:

Irteera-eguna: / / Itzulera-eguna: / /

Etxeke animaliekin edo euren hondakinekin kontaktua izan al duzu (txakurrak, katuak, narrastiak, arrainak...)?  
 Bai  Ez

**A. Non erosi duzu sintomak hasi aurreko 4 asteetan zehar jan duzun janaria ( / / eta / / bitartean)?**

Dendaren izena	Helbidea

**C. Sintomak hasi aurreko 4 asteetan zehar ( / / eta / / bitartean) etxetik kanpo zer bait jan al duzu (otorduak, pintxoak...)?**

Lekuaren izena	Helbidea	Data
		/ /
		/ /
		/ /
		/ /
		/ /

**D. Elikadura-ohiturak**

Barazkijalea al zara?  Bai  Ez

Elikagairen bati alergia al diozu?  Bai  Ez Zehaztu:

Sintomak hasi aurreko 4 asteetan zehar dieta berezi edo murriztaileren bat egin al duzu (diabetikoa, halal, kosher...)?  Bai  Ez Zehaztu:

«Etxeko» elikagairen bat jan al duzu? (zeure ortukoa, baserrikoa...)  Bai  Ez Zehaztu:

**E. Sintomak hasi aurreko 4 asteetan zehar ( / / eta / / bitartean) hauetako elikagairen bat jan al duzu?**

Galdera guztiak / / eta / / bitartean jandako elikagaiei buruzkoak dira. Elikagai bakoitzean, jan duzun, segur asko jan duzun edo jan ez duzun esan behar didazu. Elikagaia bakarrik edo ogitartekoaren edo edozein plateren zati bezala jan ahal izan duzu, baita entsalada edo pintxoetan ere.

**Segur aski:** segur aski elikagaia jan baduzu, edo normalean jan arren, aztertzen ari garen aldian jan izanaz ziur ez bazaude.  
**ED:** ez dakizu aztertzen ari garen aldian jan duzun ala ez.

	Bai	Segur aski	Ez	ED	Marka/Zehaztasunak	Erosi edo kontsumitu den lekua
<b>FIANBREAK, HESTEBETEA, PATEAK, PLATER PRESTATUAK...</b>						
<b>Indioilar-fianbrea</b>						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan xerratan moztua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>Oilaskoarena</b>						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan xerratan moztua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>Txerriarena (urdaiazpiko egosia)</b>						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan xerratan moztua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>Mortadela</b>						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan xerratan moztua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>Choppeda</b>						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan xerratan moztua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>Basurde-burua</b>						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan xerratan moztua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>Txorizo freskoa</b>						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan xerratan moztua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>Bestelako hestebete onduak (urdaiazpiko serranoa, saltxitxoa, zezina, txorizoa...)</b>						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan xerratan moztua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>Poto edo ontzikoa ez den pateak (antzara edo ahatearena ez dena).</b>						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan zatitua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		

	Bai	Segur aski	Ez	ED	Marka/Zehaztasunak	Erosi edo kontsumitu den lekua
Poto edo ontzikoa ez den ahatearen edo antzararen foie, mouseea, mikuita edo bloka						
<input type="checkbox"/> Ontziratua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<input type="checkbox"/> Establezimenduan zatitua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Saltxitxak, frankfurt modukoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Ontziratutako sandwichak (makina automatikoak, kafetegiak...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Plater aurrekozinatuak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Bestelako haragi-produktuak (carpaccio...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>GAZTA ETA ESNEKIAK</b>						
Brie	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Camembert	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Gazta urdina (roquefort, gorgonzola...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Mozzarella freskoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Latino motako gazta	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Burgos motako gazta, ontziratua gabe	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Beste gazta bigun edo erdi-bigun batzuk (havarti, emmental, gouda...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Esne gordinarekin egindako gaztak (Idiazabal...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Bestelako gaztak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Gurina (ez margarina)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Esne gordina	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Esne pasteurizatua edo UHT	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Izozkia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Jogurta	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Gatzatua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Bestelako esnekiak (gaztanbera...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>ARRAINAK ETA MARISKOAK</b>						
Ganbak, otarrainxkak, izkirak... (jan aurretik berotu gabeak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		

Maskordun mariskoak (muskuiluak, ostrak, txirlak...) (jan aurretik berotu gabeak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Surimia, gulak, marisko- makilatxo egosiak...(jan aurretik berotu gabeak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Arrain ketua edo ondua (izokina, berdela, aingira, atun gatzartua...) (ontzirat gabea)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Arrain gordina (sushia, sashimia, cevichea)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Bestelako arrain eta mariskoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
	<b>Bai</b>	<b>Segur aski</b>	<b>Ez</b>	<b>ED</b>	<b>Marka/Zehaztasunak</b>	<b>Erosi edo kontsumitu den lekua</b>
<b>LANDARE PRODUKTUAK</b>						
Ernamuinak (soja, argi- belarra, tomatea...) (latan edo potean ez daudenak)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Ebaki eta ontziratutako letxugak edo nahasteak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Prestatutako entsalada hoztuak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Txanpiñoi gordinak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Belar usaintsuak (albahaka, perrexila, martorria...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Bestelako landare- produktuak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>Barazki/fruta izoztuak</b> (2018ko uztaila)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
<b>FRUTA</b>						
Ebakita erositako fruta	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Pasteurizatu gabeko zukuak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		
Beste fruta mota batzuk	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>		

## 8. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Gogoan al duzu listeriosia prebenitzeko gomendioak jaso izana?

Bai  Ez

Nork?/Non?

Ba al duzu etxean listeriosiaren transmisioarekin zerikusia duen elikagairik?

Bai  Ez

Zein?

Baimena emango al zenuke elikadura-osasunaren arloko gure lankideak zure etxera joateko elikagai susmagarrien laginak jasotzera?  Bai  Ez

Zalantzarik baduzu edo garrantzitsua iruditzen zizun informazioen bat gogoratzen baduzu, gurekin jar zaitezke harremanetan telefono-zenbaki hauetan edo:

---

**OHARRAK:**



## 9. ZEIN ELIKAGAIRI HARTU ZAIZKIEN LAGINAK

### ESTABLEZIMENDUAK

LAGINAK ZEIN ESTABLEZIMENDUTAN HARTU DIREN	UDALERRIA	PRODUKTUA	MARKA	EGILEA	FORMATUA ETA AURKEZPENA	IRAUNGITZE DATA EDO KONTSUMO LEHENETSIA	LOTEA	EMAITZA <i>Listeria monocytogenes</i>	SEROTIPOA/PCR

## HELBIDEA

Kasuaren zenbakia epidemiologiako datu- basean	UDALERRIA	PRODUKTUA	MARKA	ONTZIA ZABALIK (BAI/EZ)	EGILEA	FORMATUA ETA AURKEZPENA	IRAUNGITZE DATA EDO KONTSUMO LEHENETSIA	LOTEA	EMAITZA  <i>Listeria monocytogenes</i>	SEROTIPOA/PCR